

9

Oinarri ezargarria

- 9.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarrian?
- 9.2 Oinarri ezargarri motak
- 9.3 Oinarri ezargarri orokorra
 - 9.3.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarri orokorrean?
- 9.4 Oinarri ezargarri berezia
 - 9.4.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarria “berezian”?

9.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarrian?

Oinarri likidagarria, kuota osoa eta kuota likidoa kalkulatu aurretik, oinarri ezargarria kalkulatu behar da. Oinarri ezargarrian, zergadunak aitortu beharreko zergaldian lortutako errenta guztiak sartzen dira. Laburbilduta, errenta hauek sartuko dira:

- **Etekinak (+/-):**
 - Lan etekinak
 - Kapital etekinak (higikorra/higiezina)
 - Jarduera ekonomikoen etekinak
- **Bazkideari egozten zaion errenta.** Hauek izan daitezke:
 - Lurralde espainiarrean egoitza ez duten sozietate garteen errentak (+)
 - Paradisu fiskaletan eratutako inbertsio fondoaren errentak (+)
 - Interes ekonomikoko taldeen errentak (+/-).
 - Enpresen aldi baterako batasunen errentak (+/-).
- **Ondare irabaziak eta galerak (+/-)**

Ikus daitezkeenez, positiboak (+) edo negatiboak (-) izan daitezke errentak. Hau da: errenta positiboak batu (edo integratu) eta negatiboak kendu (edo konpentsatu) egiten dira.

9.2 Oinarri ezargarri motak

Oinarri hauek dira oinarri ezargarriaren osagaiak:

- Oinarri ezargarria orokorra.
- Oinarri ezargarri berezia.

9.3 Oinarri ezargarri orokorra

9.3.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarri orokorrean?

Oinarri ezargarri orokorrean, aipatu diren errenta guztiak sartzen dira, urtebetetik gorako epean lortutako ondare irabazi eta galerak izan ezik. Azken horiek oinarri berezian sartzen dira.

Nola kalkulatzen da oinarri ezargarri orokorra?

Bi saldo hauek dira oinarri ezargarri orokorraren osagaiak:

- **Etekinen saldoa** (lanekoak, jarduerenak eta kapitalekoak) eta **bazkideei egotzitako errenten saldoa** (nazioarteko gartentasun fiskala eta paradisu fisikaletan eratutako inbertsio fondoak, enpresen aldi baterako batasunak, interes ekonomikoko taldeak...). Ekitaldiko errenta positiboaren baturaren eta negatiboaren baturaren arteko diferentzia izango da saldoa. Beraz, positiboa edo negatiboa izan daiteke saldoa.
- **Urtebetetik beherako epean sortutako ondare irabazi eta galeren saldoa**, baldin eta saldo positiboa bada. Saldo negatiboa bada, mota bereko ondare irabazi eta galerekin konpentsatu ahal izango da bakarrik, ondorengo lau urteetan. Ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitezkeen gehieneko kopuruan egin beharko da konpentsazioa, eta ezingo da inoiz lau urte horietatik kanpo egin ondorengo ekitaldietako ondare galerak metatuz.

9.4 Oinarri ezargarri berezia

9.4.1 Zein errenta sartzen da oinarri ezargarri berezian?

Urtebetetik gorako epean lortutako ondare irabazi eta galerekin osatzen dute oinarri ezargarri berezia.

Nola kalkulatzen da oinarri ezargarri berezia?

Irabazien baturaren eta galeren baturaren arteko diferentzia izango da oinarri ezargarri berezia, baldin eta gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuen eskualdaketei badagozkie edo aurrerapen berberaz eskuratutako baloreen harpidetza eskubideen eskualdaketei badagozkie.

Saldoa negatiboa bada, bakarrik mota bereko ondare irabazi eta galerekin konpentsatu ahal izango da ondorengo lau urteetan. Ondorengo ekitaldi bakoitzean onar daitezkeen gehieneko kopuruan egin beharko da konpentsazioa, eta ezingo da inoiz lau urte horietatik kanpo egin ondorengo ekitaldietako ondare galerak metatuz.

